ZER DA ITSASOA ZURETZAT? LEHIAKETAREN OINARRIAK
Hirugarren edizioa — 2026-27 ikasturtea

1. Lehiaketa 2

2. Helburuak 2

3. Oinarriak 2

a. Parte-hartzaileak 2

b. Edukia 2

- Elkarrizketatutako pertsona 2
- Gaiak 3

c. Edizioa 3

d. Iraupena 3

e. Hizkuntza 3

f. Bideo-dei bidezko elkarrizketa 4

g. Lanen aurkezpena 4

h. Datuak tratatzeko onespenaren agiria 4

i. Kategoriak eta sariak 5

j. Sarien gala 7

k. Epaimahaia 7

l. Funtsezko datak 8

m. Oinarriak onartzea 8

1. Lehiaketa

Itsasmuseumek DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bat proposatzen du: aitona-amonei telefono mugikor baten bidez grabatutako elkarrizketa-lehiaketa bat *Zer da itsasoa zuretzat?* gaiaren inguruan.

Kontua da itsasoa izan dadila biloba baten eta haren aitona-amonaren edo erreferentziazko adineko pertsona baten arteko elkarrizketaren sustatzailea, soseguz planteatuta, alde batetik ikasteko jakin-minetik abiatuta eta bestetik partekatzeko gogotatik, **sor daitekeen zerumuga tematikoari askatasun osoz helduz.**

BBKrekin lankidetzan egindako ekimen horren helburua itsas **kultura-ondarearen transmisioan adineko pertsonen eta belaunaldi berrien artean zubi-lana egitea** da, horixe baita museoaren zeregin nagusietako bat.

2. Helburuak

- Belaunaldien arteko elkarrizketa sustatzea.
- Adineko pertsonen memoria, bizipenak eta ezagutzak balioan jartzea.
- Itsas ondarea nerabeei hurbiltzea.
- Teknologia digitalen erabilera sortzailea, arduratsua eta kritikoa sustatzea.

3. Oinarriak

a. Parte-hartzaileak

- Lehiaketan Bizkaiko ikastetxeetako **DBHko 1., 2. eta 3.** mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute.
- Ikastetxearen eskutik zein **modu librean parte hartu** ahal izango dute.
- Parte-hartzea **banakakoa edo gehienez 4 pertsonako taldeetan** izan daiteke.

b. Edukia

- **<u>Elkarrizketatutako pertsona</u>**

  Bideoaren ardatza adineko pertsona bati edo gehiagori egindako elkarrizketa izango da. Pertsona hori parte-hartzailearen aitona edo amona izan daiteke, zuzeneko senitarteko bat, lagun baten senidea, erreferente bat, herri edo auzo bereko pertsona bat, gai bati buruzko istorio interesgarriak konta ditzakeen norbait, etab.
  Ez da beharrezkoa elkarrizketatutako pertsonak itsasoarekin lotutako lanbiderik izan izana, ezta itsasoarekin harreman bereziki estua izatea ere. Pertsona

bakoitzak bere harremana du itsasoarekin, eta bizipen horiek guztiak elkarrizketarako abiapuntu baliotsua izan daitezke.

- **Gaiak**

  Lanak originalak eta argitaragabeak izango dira -ez dira aldez aurretik inolako adierazpen edo komunikazio bidez zabalduak edo argitaratuak izan- eta proposatutako gaira egokitu beharko dira: **itsas munduarekin lotutako elkarrizketa bat**, hartzen dituen gaien aniztasuna ulertuz.

  Itsasoak (haren presentziak eta absentziak) esanahi bat du gutako bakoitzarentzat, eta, hain zuzen ere, askatasun osoz heldu nahi diogu *Zer da itsasoa zuretzat?* galderatik sor **daitekeen itsas munduarekin lotutako zerumuga tematikoari.**

  Itsasoko, itsasadarreko edo portuetako lanbideak (amarratzaileak, arrantzaleak, atoiontzietako langileak, anguleroak, gabarreroak, saregileak, ontzioletako langileak, enpakatzaileak, urpekariak, zamaketariak, etab.); itsas munduarekin lotutako istorio, sinesmen edo sineskeriak; itsasoak kostaldetik urrun jaiotako norbaitentzat duen esanahia edo norbaitek itsasoa ikusi zuen lehen aldia; emakumeen lana, askotan aitortu gabea; hondoratzeak; herri-ospakizunak; elikadura; itsasoa garraiobide gisa edo erbestera ateratzeko bide gisa; merkataritza; zurezko itsasontzien eraikuntza; kutsadura; ingurumen-kontzientzia; itsas kirolaren eta aisialdiaren bilakaera, etab.

  Itsasmuseum **inspiratzeko** toki aproposena da, horregatik, lehiaketan parte hartuko dutenek **doan bisitatu ahal izango dute museoa.**

  Era berean, web orrian lagungarri diren gaien eta galderen zerrenda bat aurki dezakete.

c. Edizioa

Beharrezkoa ez bada ere, elkarrizketa editatu ahal izango da, eta irudiak, testuak, azpitituluak, narrazioak edo bestelako bideoak sartu ahal izango dira.

d. Iraupena

5 minutu inguru, gutxienez 3 eta gehienez 8 minutu.

e. Hizkuntza

Bi hizkuntza-modalitate ezartzen dira: **gaztelania eta euskara**; bi hizkuntzak ere konbina daitezke edo azpitituluak txerta daitezke. Hizkuntza ez da elementu erabakigarria izango sarituak hautatzeko prozesuan; hala ere, aipamen berezi batek euskararen erabileraren aberastasunagatik nabarmentzen den elkarrizketa aitortuko du.
Parte-hartzaileren baten senideek beste hizkuntza batean hitz egiten badute, hizkuntza horretan egindako bideoak onartuko dira, euskaraz edo gaztelaniaz azpititulatuta badaude.

f. Bideo-dei bidezko elkarrizketa

Salbuespen gisa, eta elkarrizketatutako pertsonen bizilekuak elkarrizketa aurrez aurre egitea eragozten duen kasuetan bakarrik, bideo-dei bidez egin ahal izango da. Hala ere, elkarrizketa-formatua errespetatu beharko da: ezinbestekoa da bideoan ikasleek egindako galderak eta elkarrizketatuaren erantzunak islatuta geratzea. Ez da onartuko elkarrizketatuak bakarrik grabatutako "bakarrizketarik", solasaldia eta interakzioa sustatzea baita helburua.

g. Lanen aurkezpena

Bideoak **.mp4** formatuan aurkeztuko dira, www.itsasmuseum.eus/eu/zer-da-itsasoa-zuretzat/ helbidean dagoen formularioaren bidez.

Egilearen/egileen izen-abizenez gain, lanak elkarrizketatutako pertsonen nahiz elkarrizketatzaileen datuen tratamenduaren baimena duen dokumentuarekin batera aurkeztu beharko dira, www.itsasmuseum.eus/eu/zer-da-itsasoa-zuretzat/ eskuragarri.

Ikastetxeen eskutik parte hartzen dutenen kasuan, ikastetxearen izena ere adierazi beharko da.

h. Datuak tratatzeko onespenaren agiria

Lehiaketa honetan parte hartzeko beharrezkoa da bideoaren egileen datu pertsonalak tratatzeko baimena ematea, bai eta elkarrizketatzen diren pertsonenak ere.

Itsasmuseum Bilbaok lehiaketan parte hartzeko aurkeztutako proposamenak gorde eta zabaldu ahal izango ditu bere webgunearen, sare sozialen eta beste komunikabide batzuen bidez. Ez dira inoiz helburu komertzialekin erabiliko.

Inprimakia www.itsasmuseum.eus/eu/zer-da-itsasoa-zuretzat/ helbidean aurki daiteke. Bertan informazio guztia azaltzen da.»

i. Kategoriak eta sariak

Hauek dira lanak baloratzerakoan kontuan hartuko diren irizpideak eta irizpide bakoitzak izango duen pisua:

Aipamen bereziak -euskara, berdintasuna, jasangarritasuna- modu independentean baloratuko dira. Hala ere, epaimahaiak balio horien presentzia nabarmena osagarri gisa kontuan hartu ahal izango du balorazio orokor oso antzekoa duten lanak daudenean.

IRIZPIDEAK		Puntuazioa
Elkarrizketa, entzute aktiboa eta belaunaldien arteko lotura	Ikasleen eta elkarrizketatutako pertsonaren arteko interakzioa baloratzen da: entzute aktiboa, jakin-mina, errespetua, elkarrizketatzeko eta erantzunean sakontzeko galdera berriak egiteko gaitasuna, bi belaunaldien artean sortzen den lotura eta elkarrizketatik sortzen den ikaskuntza.	20
Testigantzaren balioa eta itsas dimentsioa	Partekatutako memoriaren, bizipenaren edo ezagutzaren interesa baloratzen da, itsasoarekin, itsasadarrarekin edo itsas kulturarekin duen lotura esanguratsua, eta testigantza hori ahozko memoria gisa jaso eta gordetzearen balioa.	15
Originaltasuna. Beste begirada bat	Gaiarekiko begirada pertsonala baloratzen da: aukeratutako ikuspegia, elkarrizketa planteatzeko modua edo bizipen baten alderdi ez hain agerikoak edo bereziki esanguratsuak aurkitzeko gaitasuna.	5
Ikus-entzunezko baliabideen erabilera	Eszenaratzea, enkoadraketa, irudiaren eta soinuaren kalitatea eta, hala badagokio, ondorengo edizioa baloratzen dira. Ez da beharrezkoa izango baliabide tekniko berezirik izatea, ezta edizio konplexurik egitea ere.	5
Elkarrizketaren prestaketa eta galderen kalitatea	Aldez aurreko prestaketa, elkarrizketatutako pertsonari buruzko ezagutza, elkarrizketa testuinguruan jartzeko gaitasuna eta galderen kalitatea eta egokitasuna baloratzen dira.	5
		50

	AIPAMEN BEREZIAK	
Euskara	Bereziki baloratuko dira erabilera naturala eta komunikatzeko gaitasuna. Etxeko euskara, tokian tokiko aldaerak (euskalkiak) eta berezko esamoldeak ongi etorriak dira.	5
Berdintasuna	Edukia, hizkuntza, jarrera kritikoa eta historiaren analisia genero-ikuspegiarekin baloratzen dira.	5
Jasangarritasuna	Istorioaren edukian eta tratamenduan ingurumenarekiko sentsibilitatea hartzen da kontuan.	5

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, sei kategoria orokor ezartzen dira ikasleen mailaren —DBHko 1., 2. eta 3. mailak— eta parte-hartzeko modalitatearen —banakakoa edo taldekoa— arabera. Horietako bakoitzean, epaimahaiak lehen, bigarren eta hirugarren sari bana eman ahal izango du; guztira, gehienez 18 sari orokor eman ahal izango dira

Sari horiek ematea ez da automatikoa. Sari bakoitza, epaimahaiaren iritziz, merezi izateko behar adinako kalitatea duen lan bat dagoenean bakarrik emango da; kategoria bateko sari bat edo batzuk eman gabe gera daitezke. Era berean, Itsasmuseumek kategoria berriak sortzeko edo sarien zenbatekoa handitzeko eskubidea gordetzen du.

Gainera, hiru aipamen berezi eman ahal izango zaizkie ingurumen-jasangarritasunari, genero-berdintasunari eta euskararen erabilerari egindako ekarpenagatik nabarmentzen diren lanei. Zer da itsasoa zuretzat? ekimenak proposatzen du ikasleek elkarrizketetan jarrera kritikoa hartzea eta, besteak beste, emakumeek itsas munduan izan duten ezinbesteko zeregina edo elkarrizketatutako pertsonek bizi izan dituzten ekosistemen eraldaketa ikusaraztea; eta, ahal den guztietan, euskaraz egitea sustatzen du.

Guztira, gehienez 21 sari eman ahal izango dira.

<table>
<tr><td colspan="2" rowspan="3"></td><td>Jasangarritasuna</td><td>Aipamen berezia</td><td colspan="2">250€</td></tr>
<tr><td>Euskara</td><td>Aipamen berezia</td><td colspan="2">250€</td></tr>
<tr><td>Berdintasuna</td><td>Aipamen berezia</td><td colspan="2">250€</td></tr>
<tr><td rowspan="12">KATEGORIA OROKORRAK</td><td rowspan="3">DBH 1</td><td rowspan="3">Banaka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 1eko banakako proiektuak</td><td>1. saria</td><td>400€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>250€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>150€</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Taldeka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 1eko taldeko proiektuak</td><td>1. saria</td><td>600€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>350€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>200€</td></tr>
<tr><td rowspan="3">DBH 2</td><td rowspan="3">Banaka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 2eko banakako proiektuak</td><td>1. saria</td><td>400€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>250€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>150€</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Taldeka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 2eko taldeko proiektuak</td><td>1. saria</td><td>600€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>350€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>200€</td></tr>
<tr><td rowspan="3">DBH 3</td><td rowspan="3">Banaka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 3eko banakako proiektuak</td><td>1. saria</td><td>400€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>250€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>150€</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Taldeka</td><td rowspan="3">Ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntu gehien batzen dituzten DBH 3eko taldeko proiektuak</td><td>1. saria</td><td>600€</td></tr>
<tr><td>2. saria</td><td>350€</td></tr>
<tr><td>3. saria</td><td>200€</td></tr>
</table>

Orientazio gisa, sariak honako kultura-, kirol- eta hezkuntza-jarduera hauengatik trukatu ahal izango dira:

SARIAK	
SUP edo piragua	Irteerak piraguan, Stand Up Paddle (SUP) edo Big SUP modalitateetan.
Gazte-zirkua	Zirku-eskolak.
Tokiko saltokiak	Tokiko saltokietan erosketak egiteko bonuak.
Zetazeoak ikustea	Irteera itsasontziz zetazeoak eta itsas hegaztiak ikusteko.
Surf ikastaroa	7 eguneko surf ikastaroa, adostu beharreko eskolan.
Kostaldeko itsasontzi-ibilbidea	Itsasontzizko ibilbidea Ogoñoko kobetara, Matxitxako lurmuturrera, Elantxobera edo Gaztelugatxeko San Juanera.
Irrati-kontroleko belaontzia ORION RTS V2	Orion Yacht RTR 2.4 GHz Joysway belaontzia. RTR bela-yatea, 2.4 GHz-ko urrutiko kontrolarekin.
Parapentea	Bi plazako hegaldia monitore batekin.
Keramika	Keramika-tailerrak.
Itsasontzi-irteera Bilboko itsasadarretik	Itsasontzi-irteera Bilbotik Abrako badiara.

Behin betiko aukerak saritutako pertsonei jakinaraziko zaizkie.
Sariak ezin izango dira eskudirutan trukatu, eta aukeratutako jardueren kostua sariari esleitutako zenbatekora iristen ez bada, aldea ez da ordainduko.

Parte hartzen duten ikasleei museoa bisitatzeko sarrerak oparituko zaizkie.

Jasotako lanen kalitatearen arabera, Itsasmuseumek kategoriaren bat hutsik uzteko eta sari kopurua eta/edo horien zenbatekoa handitzeko eskubidea gordetzen du.
Saria jasotzeko, sari-banaketaren ekitaldira joatea beharrezkoa izango da.

j. Sarien gala

Sariak familiak, ikasleak, ikastetxeak eta inplikatutako erakundeak elkartuko dituen jai-ekitaldi batean banatuko dira **2027ko ekainaren 15ean**, eta sarituei gutxienez 10 egun lehenago jakinaraziko zaie.
Sarituek beraiek joan beharko dute sari-banaketa ekitaldira Itsasmuseumera, adierazten zaien egunean eta orduan, eta **elkarrizketatutako pertsonarekin batera,** ahal den guztietan.

k. Epaimahaia

Lehiaketaren epaimahaia Itsasmuseumeko taldekideek, erakunde eta instituzio laguntzaileetako ordezkariek eta euskal kulturako pertsonaiek osatuko dute.

Epaimahaiak edozein kategoriatako saria eman gabe utzi ahal izango du.
Erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

l. Funtsezko datak

Deialdiaren irekiera: 2027ko **urtarrilaren 15a**
Deialdiaren itxiera: 2027ko **apirilaren 15a**
Sari-banaketa **ekainaren 15ean** izango da.

m. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartzean, lehiaketaren oinarriak eta baldintzak ulertu eta onartzen dira.